

KULTURA "LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS" ANTZEZLANA, GAUR, 22:15EAN


GEHIGARRIA KILIBARREN · KIRO-

LA GABONETAKO LEHEN ARETO FUTBOL TXAPELKETA

EL GOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko azaroaren 12a/XI. urtea/469. zkia



# BARREn

ASTEKARIA



*Santa Luzia,  
bistia kontserbatzeko grazia*

**"JOSTORRATZA BAINO, HARIA LUZEAGO BEHAR DA PUNTUA EMATEKO"** (esaera zaharra)



# 40 URTE 40 ISTORIO



ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



39

## Eta etorkizuna?

Aurreko 38 kapituluetan zehar, 40 urteotan Elgoibarko Izarraren bueltan izan den garrantzitsuena kontatzen saiatu gara. Azken aurreko honetan, berriz, etorkizunari begiratuko diogu. Izan ere, Gatibu talde ezagunak bere kanta batean dion moduan, etorkizunean edo geroan bizi da esperantza, eta Elgoibarko Izarraren etorkizunari bisitatxo bat egitea pentsatu dugu errebaso honi amaiera eman aurretik.

Eta zer ikusten da Elkartearen etorkizunari erreparatuz gero?

Ume eta gaztetxoekin zentratuta ibiliko gara datozen urteetan. Orain arte aisialdiari bakarrik eragin badiogu ere, datorren urtetik aurrera bost atalez osatutako Plan Integrala jarriko dugu martxan (aisialdia; errefortzu programa; transmisioa; segimendua; eta, azkenik, zerbitzuak). Esperantza eta erronka handiak dauzkagu proiektu honetan. Izan ere, umeeekin eta gaztetxoekin asmatzen badugu, bidearen erdia eginda izango dugu.

Elgoibarko Izarrak egitura sendoak izan behar dituela. Baliabide sendoak eta onak behar ditugula gure lanak gizartean eragina izango badu. Arrastaka ibilita ez dugula arrakastarik lortuko. Eta baliabideak diogunean, baliabide ekonomikoak (dirua), giza baliabideak (profesionalak eta militanteak) eta azpiegitura (lokalak, materiala...) dira ziurtatu behar ditugunak. Proiekturen batek, akaso, enpresa egitura ere har lezake.

Beste proiektu, egitasmu eta eginkizun batzuk ere ikusten edo sumatzen ditugu, baina ez daukagu tokirik denak hemen aitzateko. Gainera, ezin dugu ahaztu etorkizuna eguneroko lanarekin asmatzen badugu bakarrik ikusiko dugula.

Imanol Larrañaga

iritzia



## Jai usaina

Urteko azken hilabetea heldu eta egunero, egutegian kurutzetxo bat egiten diogu egun bakoitzari, badirudi azken orrialdea izanik, atzeraka kontatzen goazela, urte zaharreko 12 kanpai hotsak jotzen entzuteko zain...

Eta bihar ze tokatzen da? 13a, urteko egunik motzena, eta gaurik "luziena", Santa Luziakoa. Santua ere hitz-jokoan sartu da eta neguko egunarekin ados jarri, izena hartzeko.

Badago zer ospatu biharkoan: neguko solstizioa aurreratzen dute askok egun honetara, eta ongi etorria ematen diote urtaro zaharrenari eta berarekin Gabonetako jaiei, batez ere eskandiabiatarrek (ikus adibidez, <http://www.personal.psu.edu/users/f/m/fmm117/>). Neguaren ilunarekin aspertzen hasita jada, gutxienez eguna luzatzen ikusteko itxaropenari ongi-etorria egiten diogu, argiari omenaldia eginez, nahiz eta "maiatzaren 40"ra arte oraindik ere hotzak ikusi beharko ditugun.

Jostunak direnak eta ez direnak, aitzakitizat hartuta, emakume koadrilak afariak egiten dituzte, "modistillak" esaten dute batzuk irrifarre ironikoarekin ([http://www.iglesiaendaimiel.com/Tercer%20Nivel/P%C3%A1ginas/santa\\_luci\\_a.htm](http://www.iglesiaendaimiel.com/Tercer%20Nivel/P%C3%A1ginas/santa_luci_a.htm) helbidea ikusi adibidez). Dena den, "bista" ona eduki behar da eta ospatzekoak gutxi badira, ospa ditzagun, txarrak etorriko dira eta bila ibili gabe!

Baina gure lurraldean "ofizialena" dudarik gabe Santa Luziako Feria da, Urretxu-Zumarragan ospatzen dena. Sorrera bitxia du: Ezkiokoa debekatu zuten 1726. urtean, garai hartako "kristautasunaren babesa bermatzeko" eta berehala Urretxutarrek feria egitea eskatu zuten. Piskanaka, Zumarraga ere jabetu zen egunaz, indarra hartuz (ikus <http://www.santalutzi.com/euskera/historia.htm>).

Hona hemen biharko "agenda", hiruretatik aukera dezakezu bat eta gozatu, entrenamendua egin, Gabonetako martxa kolpean hartu ordez, "ohituta" iristeko.

Edurne Bilbao

Kexak .....	5
motZ MotZ.....	6
gehigarria.....	13
kiROLak .....	20

## Urruzunoren begi ezkutua Ai ze plazera



Ai ze plazera ezertarako balio ez duten gauzak egitea, Dirurik emango ez duten gauzak erosteak, Autopistan orduko 80 kilometrotan joatea, Auto ilaretan barre egitea.

Ai ze plazera Ze ordu den ez jakitea, aukera on bat galtzea.

Ai ze plazera Kapitalismoari bere armekin Kontra egitea.

Pako Aristik idatzitako lerro hauetan neure burua ikusi dut. Hitzek berez ez dute baliorik. Norberak bere bizipenen bidez kargatzen dituelako esanahiz, edukiz. Horixe da Durango, letrak baino haratago, sentsazioak eta emozioak.

Eta edozein koadernotan hartzeko apunteak. Memoriaren karpetan klikatzeko pasarteak. Durango zenbakitan neurtzen da. Historia berbekin idazten eta deskribatzen dela ahazten zaigu sarri. Eta hori da gure gaitza, komunikazioaren inkomunikazioa.

Jasone Osoro

### ASTEKARIA

# BARREN

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

[barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)

Helbide informatikoa:

[www.topagunea.com/barren](http://www.topagunea.com/barren)

ARGITARATZALEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



**Elgoibarko Izarra Elkarteak eta Udalak elkarlanean gestionatzen duten GUREAN BAI-MERKATARITZA proiekturako**

## EUSKARA TEKNIKARIA BEHAR DA

### ESKATZEN DA:

- . Euskara maila ona (ahoz eta idatziz)
- . Euskalgintzan jarduteko inizatiba eta ilusioa
- . Harremanetarako dohainak
- . Elgoibar edo inguruan bizitzea

### BALORATUKO DA:

- . Informatika ezagupideak

### ESKAINTZEN DA:

Egun osoko kontratua

Curriculumak entregatzeko:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte, Ubitarte 4, beheka 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Imanol)

E-posta: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)




◆ Gizon batek esan digunez, **Sigmako zubi sarreran jarri duten zebra bidea oso gaizki dago**: “Eibarko norabidetik datorren autoa Sigmako zubian sartzean, altura handiko zebra bidearekin topo egitea oso arriskutsua da, izan ere, toki horretan, nahi eta nahiez, kotxeak abiadura hartzen baitu. Egoera arriskutsuagoa bihurtzen da gainera, oinezkoren bat gurutzatzen baldin badago. Zubitik errepidera ateratzeko unean ere, altura horrek gauzak okertu egiten ditu. Oinezkoentzako zebra bidea hobeto zegoen lehengo tokian”.



◆ **Mintxeta kanpotik pasiatzen ibiltzen den bikote batek, beraien txakurra pasiatzeko eskubidea aldarrikatu nahi du**: “Gure txakurrarekin pasiatzen ari ginela, korrikalari bat pasatu zen ondotik, eta txakurra bere aldamenean korrika hasi zen. Ez zion ezer egin, bere alboan korrika egin, besterik ez. Mutila haserretu egin zen, baina berak, han korrika egiteko eskubidea duen bezala, geuk ere, txakurra pasiatzeko eskubidea daukagu”.

◆ **Herriko elbarritu batek, duela bi aste Barrenen argitaratutako galdera baten erantzunari erantzun nahi dio**. Udalak, “Arrantzaleen pasealekuan” elbarrituentzako ranparik ez dutela egingo adierazi zigun, izan ere, oso arriskutsua baita. Elbarritu hau, ez dago erantzun honekin ados: “Arriskutsua izan arren, aukera hori edukitzea nahi dugu, eta gero guk erabakiko dugu, arrisku hori hartu edo ez. Oztopo ugari ditugu dagoeneko eraikin zaharrekin, eta berriak behintzat, denontzako egin beharko lirateke. Aukera berdinak eduki nahi ditugu”.

◆ Gizonetako batek esan digunez, **Madalako etxe berriak dauden inguruan zakarrontzi bat puskatuta eta lurrean botata ikusi zuen**: “Zakarrontzi bat puskatuta eta lurrean botata ikusi nuen Madalako etxe berriak dauden inguru horretan, eta umeak zaborrarekin jolasean ari ziren. Denbora mordo egin zuen zakarrontziak horrela, eta inork jaso ezear, herri osoan zehar emango ditu bueltak. Asteburuetan kanpotik etortzen diren gazteek kezkatzen gara, baina lehenengo herritarrok zaindu behar dugu herria”.



## Eusko Jaurlaritzak Deba Digitala proiektua bultzatuko du 400.000 euroko dirulaguntzarekin

### Debarrenako eta Debagoienako 19 Udalek hartuko dute

**E**usko Jaurlaritzak Deba Digitala proiektua bultzatuko du, eta 400.000 euroko dirulaguntza eskainiko du. Joan zen abenduaren 3an, Eusko Jaurlaritzako SPRI (Promozio eta Errekonbertsio Industrialerako Elkarte), Debegesa eta Debagoienako Mankomunitateak elkarlanerako akordioa sinatu zuten. Josu Jon Imaz, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Turismo Sailburua, Alberto Sudupe Debegesako Presidentea, eta Inazio Lakunza Debagoienako Mankomunitateko presidentea izan ziren protagonista nagusiak. Hauekin batera, eskualdeko beste zenbait herritako alkateak ere izan ziren.



Josu Jon Imaz eta Alberto Sudupe, Debegesako presidentea, sinadura bata aurretik.

Deba Digitala proiektuaren helburua, informazioak herritarren daukan eragina azaltzea da. Honetarako teknologia berriak erabiltzen diren hainbat alorretan egingo dira esperimentuak, besteak beste,

industria, hezkuntza eta osasun alorra aztertuko dira. Lehenik eta behin, herritarrak sentsibilizatu eta formatzeko ekintza desberdinak egingo dira, eta esperimentu piloitoak jarriko dira martxan, ondorioak atera ahal izateko. Deba Digitala proiektuak, bestalde, merkataritza elektronikoa eta telelana bultzatuko ditu.

#### 19 udaletxe

19 udaletxe hartuko dute parte Deba Digitala proiektuan, eta horietako bi, Urola eskualdekoak izango dira. Hortaz, Antzuola, Bergara, Elgeta, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga, Arrasate, Oñati, Aramaio, Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku, Soralueze, Azkoitia eta Azpeitia izango dira.

### Gabonetako Jaiotzen XVII. Lehiaketa

Elgoibarko Katekesiak antolatuta, Gabonetako Jaiotzen XVII. Lehiaketa izango da. 14 urtetik beherako haur elgoibartar guztiek har dezakete parte, eta izen ematea bihar, abenduak 13, izango da goizeko 11:00etatik 13:00etara, Parrokiako lokaletan (sarrera Trenbide kaletik). Igandean, abenduaren 14an, bestalde, jaiotzak Parrokiako arkupeetara eraman beharko dira goizeko 11:00ak baino lehen. Jaiotzen erakusketa Antxustegi Zeramika zegoen lokalean ipiniko da. Lehiaketako lehenengo bost sarituei trofeoa eta oparia emango zaizkie.

## 90 pertsonak sinatu dituzte Urruzunoko Babes Ofizialeko Etxeen jabetza kontratuak

### 30 sinadura falta dira eta 16 jabetza balioga-

**J**oan zen urriaren 14an ireki zen Urruzunoko Babes Ofizialeko Etxeen jabetza kontratuak sinatzeko epea, eta dagoeneko, 90 lagunek sinatu dituzte beraien kontratuak. Guztira 120 etxebizitza daude, beraz, oraindik 30 lagun falta dira kontratua sinatzeko.

#### 16 jabetza baliogabetuak

Urruzunoko Babes Ofizialeko Etxeen proiektua asko atzeratu da. Duela hiru urte bukatzeko asmoa zegoen hasiera batean, baina etxebizitzak eraikiko zituen enpresak atzera egin zuen, eta berriz ere, lehiaketara atera behar izan zuten proiektua. Atzerapen hau dela-eta, Etxebideren zozketan etxebizitza bat tokatu zitzairen 16 lagunek, merkatu librean erosi dute etxea. Ondorioz, Etxebizitza Departamentuak beraien jabetza baliogabetu egin du.



Urruzunoko Babes Ofizialeko Etxeak.

## Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleen kontzertua izango da abenduaren 19an

Urtero bezala, Inazio Bereziartua Musika Eskolak Gabonetako kontzertua eskainiko du. Datorren abenduaren 19an izango da Parrokian, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Musika Eskolako ikasleak izango dira protagonista nagusiak, eta mota desberdinetako musika saioak eskainiko dituzte: Hari taldeak emango dio hasiera kontzertuari, Maite Irustaren zuzendaritzapean. Maite Janeirok zuzendutako akordeoi taldearen txanda izango da ondoren, eta hauen ostean, gazteen bandak joko du, Gorka Mujikak



zuzenduta. Azkenik, Aintzane Larreategik zuzenduta, Musika Eskolako txistulari eta dantzariak emango diote amaiera kontzertuari.



### Elkartasun Denda Errosario kalean

Parrokiako Misio Taldeak Elkartasun Denda ireki du Odria familiak Errosario kaleako 12 zenbakian utzi dien lokalean. Abenduaren 1ean ireki zuten, eta urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik. Bere helburua, merkataritza solidarioa bultzatzea da, eta 3. munduko produktoreei prezio duinak ordaintzea. Kakaoa, kafea, artisau lanak eta beste hainbat gauza daude salgai. Ordutegia ondorengoa da: astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 eta 17:30-20:00, eta larunbatetan 10:30-13:00.

### Merkatu Plazako dendariak bi afari zozketatu dituzte

Merkatu Plazako dendariak, bi lagunentzako bi afari banatu dituzte hilabete honetan. Irabazleak Jose Ramon Zabala eta Maria Angeles Aranzamendi izan dira. Zorionak bie!



### Abenduaren 19an inauguratuko da Parrokiako jaiotza

Datorren abenduaren 19an Benantzio parrokoak Parrokiako jaiotza inauguratuko du. Arratsaldeko 20:00etan izango da inaugurazio ekitaldia, Parrokiako kaperan, eta hurrengo egunetik aurrera egongo da herritarrentzako ikusgai. Bisita orduak ondorengoak izango dira: astelehenetik ostiralera, 17:30etik 20:30era, eta larunbat eta jaiegunetan, 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.

### Ingurugiroari buruzko erakusketa ibiltaria abenduaren 14an

Debegesak "Eko Astea"ren hirugarren edizioa ospatuko du abenduaren 10etik 17ra bitartean, eta ingurugiroari buruzko erakusketa ibiltari batek Debarrenako herriak bisitatuko ditu. Ura, zaborrak eta energia izango dira erakusketa honetan aztertuko diren gaiak. Ingurugiroaren arazoa orokorrean aztertzeaz gain, inguruko biltegi alternatiboetan jasotzen diren zabor desberdinak erakutsiko dira, besteak beste, etxe-tresna elektriko txikiak eta ofimatika materiala.

Erakusketa Eibarko Untzaga Plazan inauguratuko da, abenduaren 10ean, eta eskualdeko herri guztietatik pasatuko da. Elgoibarrera abenduaren 14an, igandean, iritsiko da. Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:15ak arte izango da ikusgai, Plaza Handian.

### Gurutze Gorriak jostailuak jasotzeko kanpaina antolatu du

Urtero bezala, Elgoibarko Gurutze Gorriak erabilitako jostailuak jasotzeko kanpaina jarri du martxan. Egoera onean dauden jostailuak bakarrik jasoko dira, eta Errege Egun bezperan beharra duten umeen artean banatuko dira. Abenduaren 15etik 20ra bitartean, Gurutze Gorriak Aita Agirre Plazan daukan lokalean utzi daitezke jostailuak, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

## Pasa den asteburuan 14 lagunek galdu zuten bizia Euskadiko errepideetan ZER EGIN DAITEKE TRAFIKO ISTRIPUAK GUTXITZEKO?



### SERAFIN MORGADO

66 urte, jubilatua

Kontu handiz gidatu, kontzentratuta. Askotan errepideak egoera txarrean daudela esaten dugu, baina gehienetan errua gidariena izaten da. Azkarregi ibiltzen gara.

### JOSE IGANCIO LEON

27 urte, langabetua

Presarik gabe bidaiatu behar da. Jendea azkarregi ibiltzen da. Legeak eta isunak gogortzea ez da irtenbide egokia. Garrantzitsuena gidariak kontzientziaztea da.



### OLGA ORZA

55 urte, etxekoandrea

Kotxea ondo lo eginda hartu, ez edan, segurtasun gerrikoa beti ipinita eraman behar da, eta abiadura gutxitu. Gidariak kontu handiz ibili behar dute.

### DAVID PINEIRO

20 urte, elektrizista

Arazo honek ez dauka irtenbiderik. Kotxe ugari desplazatzen da, eta istripuak egotea normala da. Multek hasieran izaten dute eragina, baina jendeari azkar ahazten zaizkio.



### MARIA LEKUBE

28 urte, kamareroa

Norbera kontzientziau bihar da. Poliki eta presarik gabe ibili. Askotan geure bizitza eta bestiena arriskuan jartzen dia. Nik istripu bat euki naban, eta ordutik kontu haundixauakin ibiltzen naiz.

### MARIA BLANCO

31 urte, ume zaintzailea

Garraio publikoa gehiago erabili. Kotxea hartzea derrigorrezkoa bada, poliki ibili behar da. Trafiko arauak bete eta, bestela, isun gogorragoak jarri beharko lirake.



**ELENA**  
ileapaindegia  
Depilazio Elektrikoa  
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**  
Domingo Arrizabalaga  
SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA  
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83








*Rosa Mari Herrero oso gaztetan hasi zen josten. Txikitatik daukan zaletasuna da jostea, eta azken urteotan, berak dakiena beste batzuei irakasten die. 4 urte daramatza josteko ikastaroak ematen. Karkizano dendan biltzen dira, talde oso polita daukate, eta sekulako giro onean ematen dute arratsaldea. Bihar, Santa Luzia eguna da, jostunen eguna, eta beraiengana hurbildu nahi izan dugu. Une batez jostorratza mahai gainean utzi, eta Rosa Mari Herrerorekin solasean izan gara.*

## “Pazientzia eta orduak behar dira josten ikasteko”

### ■ Noiz eta nola hasi zinen josten?

Jostea zaletasun bat da niretzat. Txikitatik gustatu izan zaizkik eskulanak, eta josten izugarri disfrutatzen dut.

### ■ Nola ikasi zenuen josten?

Eskolan irakasten zizkiguten gauza batzuk, baina gehiena amarengandik ikasi nuen. Berak erakutsi zizkidan bainikak egin eta brodatzen. "Bolillo"ak egiten ikastaro batean ikasi nuen, baina gainontzeko guztia nere kabuz ikasi dut.

### ■ Zer behar da josten ikasteko?

Pazientzia handia. Ordu asko eskatzen dituen lana da, presarik gabe hartu behar da. Gauzak askotan desegin behar izaten dira. Poliki eta ondo egitea da garrantzitsua.

### ■ Zer irakasten duzu ikastaroan?

Denetarik. Bainikak, "bolillo"ak, "gantxiloa", kanastilak, gurutze puntua, brodatuak... bakoitzak ikasi nahi duena. Ikastaroa irailaren 15etik ekainaren 15era izaten da, eta denetarik ikasten dute. Urtean bi erakusketa egiten ditugu ikasleen lanekin, Trinitateetan Plazara ateratzen gara, eta San Bartolomeetan nik egindako lanak jartzen dira Karkizanoako eskapartean.

### ■ Ikasleen artean, ba al da gizonezkorik?

Ez daukat bat bera ere, baina ezagutzen ditut "bolillo"ak edota gurutze puntua oso ondo egiten duten gizonezkoak. Ondo hartuko genituzke, baina ez dira ausartzen.

### ■ Zer esanahi dauka zuretzat Santa Luzia egunak?

Jostorrazarekin lana egiten duen jendearenganako errekonozimendua da. Ez dut modu berezian ospatzen, guk kurtso amaieran egiten dugu geure bazkaria eta ospakizuna.

### ■ Gazteek ba al dakite josten?

Gustatzen zaionak ikasten du. Gazteek normalean ez daukate denborarik, baina neska gazteak ere etortzen dira ikastarora. Haurdun dauden neskek adibidez, ilusio handiz egiten dituzte umearentzako jantziak.

### ■ Josteko makinak jostuna ordezkatu al du?

Ez dut uste. Askok erabiltzen da josteko makina, baina badaude derrigorrez eskuz egin behar diren konponketak. Gainera, norberak eskuz egindako lanak balio handiagoa dauka.

### ■ Jostunak desagertu egingo al dira belaunaldi berriekin?

Jendeak ez ditu jantziak egiten, gehiena eginda erosten da. Gaur egun, jendeak ez dauka josteko beharrik, josten diren gauzak kapritxo egiten dira, zaletasunez.

### ■ Zenbat aldiz zauritu dituzu behatzak jostorrazarekin?

Askotan, josten ikasteko noizean behin behatzak zauritzea ezinbestekoa da.

ROSA MARI HERRERO

## Aurre-jubilatuak eskubideak defendatuz



**LUIS MARI ALBERDI eta ROGELIO VELA**

APPEBADE elkartearen atzean Debarrenako aurre-jubilatu eta pentsiodunak daude, beraien eskubideak defendatu eta aldarrikatzeko duela 3 urte sortutako elkarte baina. Rogelio Vela eta Luis Mari Alberdi Elgoibar eta Eibarko ordezkariak dira, hurrenez hurren. Jubilatu aurretik galdu zuten lana biek eta aurre-jubilazioa hartzerantz behartuak izan ziren. Espainian 1,2 milioi dira egoera berebean daudenak, hau da, 65 urte bete baino lehen lana galdu eta aurre-jubilatu direnak. Berez tokatuko litzaiekeena baino pentsio baxuagoa jasotzen dute. Murrizketa hau eta beste eskubide batzuk aldarrikatzeko batu dira.

**80.** hamarkada bukaera eta 90. hamarkada hasierako industria birmoldaketaren ondorioz milaka langile geratu ziren langabezia eta 1,2 milioi aurre-erretiroa hartzerantz behartuak izan ziren. Jubilatzeke adinera (65 urte) iritsi baino lehen, lana bilatzeko adin oso kritikoa, beraien borondatearen aurka aurre-erretiroa hartzearen ondorio zuzenena pentsioaren murrizketa izan zen. Gizarte Segurantzaren 35 urtez kotizatu arren, erretiro-pentsioaren %35a edo %40a betirako galdu zuten. Izan ere, 65 urterekin erretiroa hartu aurretik kobratutako aurre-erretiro urte bakoitzeko %7a edo %8a bitarteko penalizazioa ezartzen du Gobernuak. 2001. urtea baino lehen aurre-jubilazioa hartuz gero %8koa da penalizazioa, pentsioaren %40aren galera, beraz. 2001. urtetik hona aurre-erretiroa hartu zutenek, berriz, %30eko murrizpenak jasan dituzte zaharsari edo erretiro-pentsioan.

### Lege berdina denentzat

Aurre-erretiratuak elkarteek ezberdintasun hauek ez direla bidezkoak diote eta legea denentzat berdina izan dadila eskatzen dute. Aurre-erretiratuak denak kondizio berdinetan daudela aldarrikatzen dute eta batzutan gainera, Gizarte Segurantzaren urte gehiagoan kotizatu arren, gutxiago kobratzen dutela

langile aurre-jubilatu batzuek salatzen dute. Aurre-jubilatu guztiek pentsioen oinarri arautzailean ezarritako %70eko ordainsaria jasotzea eskatzen dute. “Legeak dio 35 urtez kotizatuz gero erretiro pentsioaren %100 jasotzeko eskubidea dugula. Kotizatu duguna paga diezaguten borrokan ari gara. Nire kasuan adibidez, 56 urterekin bota ninduten Sigmatik eta Gizarte Segurantzaren 46 urte kotizatuta ditudan arren, pentsioaren %60a bakarrik jasotzen dut” Azaldu digu Rogelio Velak.

### Gero eta aurre-jubilatu elkarte gehiago

Elkarteak indarra ematen duenaren jakitun, aurre-jubilatu taldeak batzen hasi eta euren egoera eta jubilatu boluntarioena ezberdinak zirela aldarrikatzen hasi ziren. Bizkaian sortu ziren lehen taldeak 1996 inguruan, baina 1999. urtera arte ez zen sortu Euskal Herriko aurre-jubilatu talde guztiak batzen dituen federazioa, “Fevaas”, alegia. Guztira 19 elkarte bereganatzen ditu eta hauetako zazpi Gipuzkoan daude, tartean Debarrenakoa. Une honetan 240 bazkidek osatzen dute “Appebade” (Debarrenako aurre-jubilatu eta pentsiodunen elkarte). Eibarko Portalean egin ohi dituzte batzarrak eta bazkide izateko urteko 12 euro ordaintzarekin nahikoa da. Izena emateko 943 74 12 12 96 telefonora deitu eta Luis Marigatik galdetu.

### ESKAERA NAGUSIAK

1. 65 urte betetzean erretiro-pentsioaren %100a jasotzea, Gizarte Segurantzaren 35 urte baino gehiagoan kotizatu izanez gero.
2. Pentsioen oinarri arautzailearen araberrako Alarguntzako-pentsioa %48tik %70era jasotzea.
3. Aurre-erretiratu eta alargunen

### Eskaerak bideratzeko modua

Lehen eta bigarren eskaerak herri-ekimen legegintza ekinbide baten bitartez bideratu edo lortu nahi dira. Hirugarren eskaerari dagokionez, ordezkaritza, alegia, 500.000 babes sinadura aurkeztu nahi dituzte Kongresuan. “Aurre-jubilatu, pentsiodun eta alargun guztiak batu eta guri dagozkigun gaietan ordezkapena eskatzen badugu, orain arte babesgabe egon eta ezikusiak izan garelako izan da. Legalki gure eskubideak defendatu behar zituzten agente sozialek ez dituzte beraien eginbeharrak bete eta askotan gure gaur egungo egoeraren errudun zuzenak dira”. Beste helburu nagusi bat Erkidegoetako aurre-jubilatu guztiak batuko dituen Estatuko aurre-jubilatu eta pentsiodunen Konfederazioa sortzea da. Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian eta zenbait komertziotan daude sinadura orriak. Denda edo tabernetan orriak jarri nahi ezkeroko 943 74 20 72 (Rogelio) telefonora deitu.

# BERTSO

# SAIOA

A  
B  
E  
N  
D  
U  
A  
R  
E  
N



## ELGOIBARREN

*Ametz Arzallus*

*Sustrai Colina*

*Maialen Lujanbio*

*Jon Maia*

23an

**Aurkezlea:**

*Uxue Alberdi*

ASTEARTEA

22:15ean

H  
E  
R  
R  
I  
K  
O  
  
A  
N  
T  
Z  
O  
K  
I  
A  
N



ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



Elgoibarko  
Udala

## ESKOLA KIROLA

### AGENDA

Abenduak 13, 6. Jardunaldia

#### ESKUBALOIA, Kiroldegian

##### ■ Benjaminak ■

9:00 Herri Eskola B - Herri Eskola C

9:35 Mendaro A - Mendaro B

10:10 Ikastola A - Ikastola B

10:45 Ikastola C - Ikastola D

11:20 Pilar A - Pilar B

11:55 Pilar C - Herri Eskola A

#### FUTBOLA, Mintxetan

##### ■ Infantil mutilak ■

10:30 BHI B - BHI A

11:15 Ikastola B - Ikastola A

12:00 Pilar B - Pilar A

##### ■ Infantil neskek ■

10:30 Pilar A - BHI A

11:15 Pilar B - Ikastola B

#### SASKIBALOIA, Herri Eskolan

##### ■ Alebin mutilak ■

10:30 Mendaro A - Pilar B

11:15 Ikastola B - Ikastola A

12:00 Herri Eskola A - Pilar A

##### ■ Alebin neskek ■

9:00 Ikastola C - Herri Eskola A

9:45 Ikastola A - Pilar B

## Bilboko Pin Parkera Atxutxiamaika eta Gaz-T Aisialdi Taldekoekin Gabonetan



A txutxiamaika eta Gaz-T Aisialdi Taldeek Bilboko Pin Parkerako bi irteera antolatuta dituzte datozen Gabonetarako. DBH 1, 2 eta 3. mailakoentzat abenduaren 29an, astelehenean, eta LH 4, 5 eta 6. mailakoak, abenduaren 30ean, asteartean, joango dira. Irteera 9:45ean Elgoibarko tren geltokian, eta itzulera, arratsaldeko 20:25ean egingo dute.

Izena emateko epea abenduaren 15etik 19ra izango da. Interesatuak 10 euro ordaindu beharko dituzte Kutxako 2101 0036 65 0124148420 kontuan, eta ordainagiria Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen entregatu beharko dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 16 26 (Nerea Oñederra) deitu daiteke.

## IMHko Ingeniaritzako 3. mailakoek mintegia izan zuten Arraten

Txandakako Enpresa Ingeniaritzaren 3. Ikasturteko ikasleek mintegia izan zuten Arraten joan den azaroaren 24tik 28ra arte.

Mintegia aurreko bi urteetan zehar egindako formazioaren balantzearekin hasi zuten, eta enpresa praktiketan eta IMHn lortutako gaitasunak definitu zituzten.

Ondorengo jardunaldia profilen araberako lan-taldean antolaketa izan zen kalitatea, produkzioa, diseinua... eta jarraian, beraien lan-munduko Proiektuaren Diseinuari buruzko lana egin zuten, ikasleek beraien lan-bizitzarako aurreikusten ditun helburuak finkatuz. Bukatzeko,



ikasle bakoitzak etorkizuneko beharretarako dituen edo falta zaion gaitasunak identifikatu ondoren, azken helburuak lortzeko bere prestakuntza-plana definitu zuen.

## Herri Eskolakoak Intxorta mendian izan ziren



Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak Mendi Taldeak antolatuta, Elgetako Intxorta mendira (736m) egin zuten irteera joan den azaroaren 23an. Gerra Zibilaren garaian bertan izandako gerrateak direla-eta, mendi ezaguna da Intxorta. Eguraldi

eskasa egin zuen arren, Herri Eskolatik 60 lagun inguru izan ziren txangoan. Elgetatik abiatuta, Bergarako Angiozar auzorako bidean dagoen Asentzio parkean hasi zuten. Bertatik, Intxorta mendiaren gailurrera igo ziren zuzenean. Ondoren, Gaztelu Haitza (715m) eta Intxorta Txiki (710m) gainak ere egin zituzten. Hurrengo irteera abenduaren 14an egingo dute Kalbaixotik Arnoko Gurutzera.

## Pilar Ikastetxeakoak Alkizan izan dira

Pilar Ikastetxeako 5. mailako ikasleak bost egun pasatu dituzte Alkizako barnetegian. Bi helburu nagusi izan ditu irteera honek: Euskararen erabilera sustatzea batetik, eta ikasleak ingurugiroaren arloan murgiltzea, bestetik.

Ikasle eta irakasleez gain, Alkizako lau begirale izan dira beraiekin, antolatutako ekintza guztiak burutzen. Ekintzen artean interesgarrienak, zaldi ibilbideak, pelikulen grabazioak eta mendi irteerak izan direla aipatu digute.



# Kiliberren

## DIPUTAZIOAK "KUKU" ETA HIRI ANTOLAKETA ARAUEN BERRIPUSPEN PROIEKTUAK ATZERA BOTA DITU

Abenduaren 2ko diputatuen kontseiluan hartu zen erabakia

Udal berria eratu zenetik, Mendaroko Talde Independentearen lana Diputazio-ri proiektu hori atzera botako zutela jakin araztea izan da. Azken batean, aurreko udal gobernuak udal hauteskundeetarako 3 egun falta zirela aprobatau baitzuen bi proiektuon berrikuspena, herriak gai honi buruz bere iritzia eman aurretik.

### MTIren iritzia

Orain Diputazioak Mendaroko Talde Independentearen argumentuei kasu eginez bi proiektu hauek geldiaraztea erabaki duenez, MTIk zera dio:

"Gure egitekoa une honetatik aurrera hasten dela kontsideratzen dugu, behin proiektu hauek geldituta, mendarotar guztiontzat gure herriak zenbat eta nola hazi behar duen erabakitzeke epea zabalitzen da. Gure nahia Hiri Antolaketa Arau berriak egiteko prozesu ireki eta partehartzaile bat bultzatzea da" epea zabalitzen da. Gure nahia Hiri Antolaketa

Arau berriak egiteko prozesu ireki eta partehartzaile bat bultzatzea da".

Bi proiektu hauen inguruan polemika handia sortu da Mendaron azken urte t'erdian, EAJ-PNVren hauteskundeetako porrotaren arrazoi nagusia izan daitekeela ere esan da. Aurreko udal korporazio osoak ezezkoa eman zien bi proiektuei eta "Gautxori" izeneko herri plataforma ere saiatu zen, helburu berdina lortu nahian.

Ezezko hauen arrazoiak Mendarorako gehiegizko hazkundea defendatzen zuten Hiri Antolaketa Arauetan dago, izan ere, herriko biztanleria bikoiztea eta Mendaro 3000 biztanletako herria bihurtzea baitzen helburua. 1990ko Hiri Antolaketa Arauek 240 etxebizitza berri egitea jasotzen bazuten, orain Diputazioak atzera bota dituen Arau hauetan 840 etxebizitza berri egin nahi ziren.

## Arnora irteera eta gabonlekuak izango dira In Leikek antolatuta

IN LEIKEK urtero bezala abenduaren 3In Arnora irteera antolatu du urte zaharraren amaiera eta urte berriaren hasiera ospatzeko. Irteera honetarako ez da izenik eman behar eta doanekoa da. Normalean 9.00-9.30 aldean atera izan dira Emeterio taberna ondotik eta Arnoko gurutzera igo eta gero, aterpetxera jaitsi dira hamarretakoa egitera. In Leikek turroi eta caba apur bat eramateaz gain, joaten direnek ere beti eramaten dute zerbait. Jadanik badira 5 urte irteera hau egiten hasi zirenetik eta giro polita izaten omen da, gabon kutsuarekin. Joateko asmotan bazabiltza jarri zaitez elkartarekin harremanetan



eta beraiek emango dizute beharrezko informazio guztia. Bestalde, haurrentzako ekitaldiak ere antolatu ditu In Leikek, "Gabonlekuak", jada izena emateko epea irekita dago, 15 euroko prezioarekin.

## Jubilatuen txokolatadak arrakasta izan zuten

"Lagun betikoak" jubilatutako bazkideek txokolatada izan zuten aurten ere. Ikastolako lokaletara hurbildu zirenak txokolatadaz gain, hainbat opariren zozketan parte hartzeko aukera izan zuten. Normalean ekitaldia hau abendu erdialdean ospatzen bada ere, hainbat arrazoi-erengatik azaro bukaerara atzeratu da. Aipatzekoa da Eibarko Azahar dantza taldeak giro benetan polita sortu zuela.

## Linazasoroko etxebizitzak izan ziren lehenengo foroan aztergai

Orain dela egun batzuk Mendaroko udal-letxeak lehenengo eztabaida foroa antolatu zuten herritarren partaidetza bultzatzeko. Lehenengo foroan Linazasoro kalean eraiki nahi diren etxebizitzak aritu ziren. Aurreko legegaldian mobilizazio anitz sortu ziren azkeneko hilabeteetan eraiki nahi diren etxebizitza hauengatik. Horregatik forora 25 pertsona hurbildu ziren. Hala ere, foroa baino gehiago hitzaldi publikoa izan zen. Esti Gonzalez alkatea, Miren Vives, hirigintzako zinegotzia eta Juan Garate, ekonomia zinegotziak hurbildutakoak informatu zituzten.

Hilero ospatuko dira foro hauek, nahiz eta oraindik ez den ezagutzen zein gai aztertuko den hurrengoan.

## Kabalgata Mendaron

Erregeek deitu digute Mendaroko kabalgataren berri emateko. Urtero bezala Errege bezperan ospatuko da, urtarrilaren 6an, arratsaldeko 18ak inguruan. LH 5, 6 eta DBH3 mailako 35-40 haurrek hartuko dute parte. Erregeak zaldi gainean etorriko dira eta Santa Anan hasiko dute ibilbidea. Ondoren, herriari buelta eman eta gero, Azpilgoetako eliza barrura sartuko dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Bertan, umeek beraiekin hitz egiteko aukera izango dute, baita beraien eskutitzak emateko ere. Erregeak Mendaron ere izango dira beraz, Arno guraso taldeak deitu dituelako.



**Kiliberren**

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# Kontsezio azoka

Trikitularien kalejira, "Biurri" aizkolaria, barazki eta artisautza postuak, ganadua, ogia, p  
Goizeko lehen orduetatik hasi zen jendea hurbiltzen Herriko Enparantzara eta 13.45 etan, postu  
Hala ere, Ernesto Ezpeleta "Biurri" aizkolariaekin gozatu zuten benetan bertara hurbildutakoek. 3 metro t-erdi  
desberdineko 6 aizkoradun 2 joko erabili zituen Biurrik enborra bitan banatzeko



Mendaroko txokolate eta bizkotxoak erosteko aukera izan genuen



4 artisau, 8 ganadu eta 15 barazki postu izan ziren azokan. Postu onenaren saria "sagarminña"

# ARGAZKI -

pastela, Mendaroko txokolatea, bizkotxoa ez zen ezer falta 9. Kontsezio Azoka honetan. onenaren saria Pakita Ubietak jaso zuen, Sagamiæa deituriko barazki eta fruitu postuagatik. ko perimetrodun enborra moztea zen bere lana eta 1 ordu, 3 minutu eta 2 segundo behar izan zituen. Kirten . marka paregabea egin zuen enborraren dimentsioak kontuan hartzen baditugu.



"Biurri" aizkolariak 3 metro t'erdiko enborra moztu zuen ehundaka pertsonaren



Ganadu, fruitu eta barazkiez aparte trikitilari, euskal dantzak eta bertsolariak ere izan ziren giroa



Eguraldiak ez zuen kale egin eta jende mordoxka gerturatu zen azokara.



# Erretratu zaharra




**H**ilabete honetako argazkia **Itxasne Ibaetak** ekarri digu eta 1994 ingurukoa dela esan digu. Mendaroko San Jose Ikastolako ikasleak Saloura joan ziren ikas bidaian eta bertan, Mendaroko komentuan bizi izan ziren mojak bisitatzera gerturatu ziren.



**karkizano**  
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



**Arrieta**  
San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49



**Amhoa Bastida**  
PROTESIKO DENTALA  
Santa Ana, 11 Tel.: 943 74 11 00  
Elgoibar

San Bartolome, 6



**Boutique del Pan**  
Okindegia

- Artisau-ogi mota ezberdinak
- Tartak
- Opilak
- Pastelak
- ...

**Mota ezberdinetako tartak enkarguz!**

Telf.: 943 741107



## Euskal Herriko Naziotasun Aitormena

### 450 lagun inguruk atera dute EHNA Elgoibarren

**D**atorren abenduaren 13an eta 14an, Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren eguna ospatuko da Euskal Herri osoan. Elgoibarren ere, izango dira ekitaldi berezi batzuk: asteburu osoan zehar, Plaza Handian postu txiki bat jarriko dute, eta oraindik ere EHNA ez daukan jendeak, bertan egiteko aukera izango du. Honekin batera, bihar larunbata, luntx txiki bat eskainiko dute, eta Plaza Handira hurbiltzen den jendeari boligrafoak eta beste zenbait oparitxo banatuko zaizkio.



Iazko abenduan Udalbiltzak lokal bat ireki zuen elgoibartarrok EHNA eskuratu ahal izateko. 450 elgoibartar inguruk eskuratu zuten EHNA. Arduradunek esan digutenez, zifra oso ona da, baina asteburu honetan jende gehiagok egingo duela espero dute. Urtebete pasatu da gutxi gora behera EHNA martxan jarri zenetik, eta guk, EHNA eskuratu zuten bi elgoibartarren iritzia ezagutu nahi izan dugu. Nerea Oñederra eta Ion Gurrutxagarekin egon gara, eta urte honetan EHNArekin izandako esperientzia kontatu digute.



NEREA OÑEDERRA

**"Euskaldunok nortasun propioa daukagula adierazten duen karneta da EHNA"**

**Noiz egin zenuen EHNA? Zergatik?**

Martxoan. Euskal Herrixan bizi geranez, euskaldunok nortasun propioa daukagula identifikatzeko eskubidia izateko.

**Zer esanahi dauka EHNak zuretzat?**

Euskal Herriko hizkuntza euskara dala jakinik, euskaldunok nortasun propioa izan dezakegula adierazten duen karneta da. Oin garrantzitsua eta zailena karnet honi praktikotasuna emateko eskubidia lortzea da.

**Erabiltzen al duzu?**

Ba egia esan oindikan ez dot erabili.

**EHNA erakustean, jendeak ezagutzen al du?**

Nere inguruko jendia behintzat ezagutzen du EHNA.

**Arazorik izan al duzu?**

Ez, momentuz ez dot inolako arazorik euki.

**EHNA bakarrik edo NAN ere erabiltzen duzu?**

Karteran bixak erabiltzen ditxut.

**Guardia Zibilen kontrol batean erakutsiko al zenuke EHNA?**

**Eta Ertzaintzari?**

Zorionez aspaldixan ez dot beraiekin topo ein, baina ez dot uste EHNA erakusten ausartuko nintzanik. Seguruunik bestea erakustia eingo ziatela.

ION GURRUTXAGA

**"Espainiako Nortasun Agiriarekin ez naiz identifikatzen"**



**Noiz egin zenuen EHNA? Zergatik?**

Gabonen ostean egin nuen. Ez naiz Espainiako Nortasun Agiriarekin identifikatzen. Hortaz, nire aberria zein den adieraziko duen agiria edukitzea ideia ona iruditu zitzaidan.

**Zer esanahi dauka EHNak zuretzat?**

Espainiarra arrotza da niretzat, nortasun agiri bat izatekotan hauxe da nirea.

**Erabiltzen al duzu?**

Egia esan, ez dut sekula erabili. Ohitura falta izango da, beharbada.

Nortasun agiria gutxitan erakutsi behar izaten dut, kreditu txartelaz ordaintzean ia beti. Eta egia esan, ez zait inoiz ateratzea bururatu. Agian onartuko ez didatelako. Harro nago EHNA izateaz. Badut erabiltzen hasteko ordua ez?

**Guardia Zibilen kontrol batean erakutsiko al zenuke EHNA?**

Ez, horientzat edozein aitzakia ona da errepedean ordu batez geldiarazteko.

**Eta Ertzaintzari?**

Bai. Ez dakit onartuko luketen, ez dut uste. Baina ziur aurrekoek baino denbora gutxiago edukiko nindutela bide ertzean.

## Hasier Etxeberriak "Patri maitea..." artikulu bilduma kaleratu du Azken 4-5 urteetan Gara egunkarian idatzitako iritzi artikuluak

**H**asier Etxeberria idazle eta kazetari elgoibartarrak azken 4-5 urteetan Gara egunkarian plazaratutako iritzi artikuluak bilduma argitaratu du Alberdania etxeak Zerberri sailaren barruan. Anjel Lertxundi idazle oriotarrak lagundu dio artikuluak hautaketa lana egiten, "Hamabost egunean behin eta testuinguru zehatz batean idatzi ditudan, aktualitateak eragindako aipamen, gogoeta eta bizikizunak dira, baina gaurtik bertatik irakurleak gozatzeko modukoak".

Gutun egiturazko zutabeak dira. Denak Patri izeneko pertsona bati zuzenduak, "ez dakigu neska edo



mutila den, hemen ez dagoela bakarrik dakigu. Genero hau lantzeko egokia iruditu zitzaidan hemen ez dagoen lagun bati zuzentzea eta hemengo gauzez egiten dudan gogoeta idaztea. Iritzi artikuluak kazetaritza eta literatura uztartzen dituen kazetaritza generoa da. Zutabe hauetan genero misto hau ulertzeko dudan modua edo proposamena islatu nahi izan dut".

Norberaren burua ezagutzeko bide ona dela iritzi zutabegintza pentsatzen du Hasierrek, "norberaren pentsamendua ahozkoan baino hotzago bilatzeko modu bat da". Hasier berak Juan Jose Millas zutabegile espainiarra duela gogoko aipatu digu.

### Zinea Gabonetan Zikloa abenduaren 18an hasiko da

Zinea Gabonetan Zikloa antolatu du Ongarri Zine Klubak Udalaren eta herriko ostalari batzuen laguntzaz. Sei filma izango dira guztira, hiru Udaleko Kultura Sailaren eskutik eta beste hiru Ongarri Zine Klubak aukeratuak. Zikloko lehen filma "Suite Habana" dokumentala izango da abenduaren 18an, eguenean (22:15). Achero Mañasek ("El Bola") zuzendutako "Noviembre", eta "Feme fatale" filma frantziarra izango dira Ongarri aukeraturako beste biak. Gainontzeko hirurak komertzialagoak izango dira: Sean Connery protagonistatzat duen "La liga de los hombres extraordinarios", Coen anaien azkena den "Crueldad intolerable" Catherine-Zeta Jones eta George Clooney ederrekin eta Clint Eastwood aktore eta zinegileak sinatutako "Mystic River".



### "Las mujeres de verdad tienen curvas" antzezlanak, gaur 22:15ean, Herriko Antzokian



**A**dos Teatroa konpainiaren eskutik "Las mujeres de verdad tienen curvas" antzezlanak ikusteko aukera izango da gaur, barixakua, gaukeo 22:15ean Herriko Antzokian. Protagonistak, bost etorkin hegoamerikar gizen dira. Etorkin latinoamerikar baten bizipen berri emateaz gain, benetako emakumeen gorpuak goraiatu nahi ditu antzezlanak. Edozein hiri handitan aurki daitekeen etorkin auzo bateko jostun tailer klandestinoan girotzen da kontakizuna. Bizirik irauteko, buru belarri saiatzen

dira lanean, betetzeko ezinezkoak diren epeen mendean. Anaren ikuspuntutik kontatua dago istorioa; guztietan gazteena da, Bigarren Hezkuntza amaitu berri eta unibertsitatean sartzeko irrikan dago. Auzotik atera eta idazle izatea amesten du. Dirua behar duen arren, ez du tailerrean lan egitea gogoko eta errespetu gutxi die lankideei. Hauek, berriz, barre egiten diote Anari, bere nahi eta desio guztiak utopia hutsa direla uste baitute. Antzezleak Espainian bizi eta kubatar nazionalitatea duten 5 aktore dira.

## Bertso saioa abenduaren 23an, martitzena, Herriko Antzokian

### Arzallus, Colina, Lujanbio eta Maia arituko dira bertsoan

**A**urtengo Gabonetan ere ez galtzeko moduko zita izango dute herriko bertsozaleek Herriko Antzokian (22.15). Iazkoari jarraituz bertsolari gazteen aldeko apustua egin du Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eta punta-puntako lau bertsolari gazte lotu ditu abenduaren 23an, martitzenean, taula gainera igotzeko: Amets Arzallus, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio eta Jon Maia. Iparraldekoak maiz etorri dira azken aldian gure herrira, iazko saioan eta Elgoibarko Izarra Idatz-lehiaketaren sari banaketan aritu baitziren bertsoan. Bietan ere saio politikak eskaini zituzten. Maia zumaiarrak eta Lujanbio



Bertso saiorako sarrerak aurrez eros daitezke Elgoibarko Izarran.

hernaniarrak, berriz, ez daukate jadanik inori ezer frogatu beharrik, egun inspiratua izan dezatela eskatu, agian. Eta egun totela tokatuz gero ere, Uxue Alberdi aurkezle eta gai jartzaile

elgoibartarraren laguntza izango dute. Sarrerak aurrez eros daitezke Elgoibarko Izarran (943 74 16 26) abenduaren 23a baino lehen. Salneurria: 5 euro ( 3 euro langabetuek eta ikasleek).

## Udal Musika Bandak kontzertua eta kalejira eskainiko ditu Eibarren abenduaren 14an

**E**lgoibarko Udal Musika Bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu Eibarren datorren domekan, abenduaren 14an. Goizeko 11:00etan hasita egingo dute kalejira Eibarko kaleetatik. Ondoren, eguerdiko 12:30ean kontzertua emango du Bandak Astelena pilotalekuan. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako piezak joko dituzte: “La Primitiva” pasodoblea (J. Penders), “The Phantom of the opera” musikala (L. Webber), “Dantzaldia” euskal kantak (I. Urkizu), “Tico-Tico” sanba (Z. Abreu) eta “Shirim” rapsodia (P. Swerts).




### Gabonetako kontzertua

Bestalde, Udal Musika Bandak Gabonetako kontzertua eskainiko du urtero legez abenduaren 21ean, domekan, Herriko Antzokian. 12:30ean hasiko den saioak honako egitaraua izango du: “La puerta grande” (E. Checa), “La Marchenera” (F. Moreno), “Suite en La” (J. Gomez), “Silent night” (F. Gruber), “Los Euskaros” (Torre Muskiz) eta “Ator-Ator” (T. Aragues). Azkenik, abenduaren 24an, Gabon Egunean, arratsaldeko 19:15ean hasiko da ohiko kalejira.



### ESKERTZA

2003ko abenduaren 8an, 90 urte zituela hil zen **PEDRO ETXANIZ ETXEBERRI**aren emazte, seme-alaba, biloba eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Elgoibarko Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatuko dira abenduaren 23an

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak herrian dauden 17 klubek urtean zehar egiten duten lana aintzat hartzeko asmoz Elgoibarko Kirol Federatuaren Urteko Sariak antolatu ditu.

Sari hauek urtero Gabonetan banatuko dira eta aurten, lehenengo aldiz, abenduaren 23an, arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da Elgoibarko klubuen ospakizuna.

Horretarako klub bakoitzak aukeratu beharko du bere kirolean aurten saria jasotzea merezi duen kirolaria. Klubekoa edo eta kirol horretan beste klub batean parte hartzen duen edozein kirolari elgoibartar izan daiteke aukeratua.

Kirolariaren izena eta aukeratua izateko klub bakoitzak dituen arrazoiak (urteko lorpenak, ibilbidea, jokaera, e.a.) abenduaren 15a baino lehenago jakinarazi beharko dio Kirol Patronatuari.

Era honetara, urtero, kirol modalitate bakoitzeko elgoibartar kirolari onenak sarituko dira.

## Espainiako Ehiza Xeheko Txapelketaren atarian geratu dira Conde eta Rogel ehiztariak Conde 6. postuan eta Rogel 8. postuan



**D**avid Conde eta Txomin Rogel Elgoibartarrak Espainiako Ehiza Xeheko finalaren atarian geratu ziren pasa den abenduaren 6an Soriako Castillejo de Robledoko ehiza esparruan jokatu zen Espainiako Ehiza Xeheko finalerdian. Euskadiko txapeldun eta txapeldunorde gisa joan ziren, baina gutxigatik izan bazen ere ez zuten finalerako sailkatzerik lortu. Lehen bost ehiztariak eskuratzen zuten finalerako sailkapena, baina Conde seigarren eta Rogel zortzigarren postuan sailkatu ziren. Finalean sartzeko atea aurpegi aurrean itxi izan baliote bezala sentitu zela aipatu digu Condek, “100 puntu eskasengatik ez nuen sailkatzerik lortu, pieza bat gehiago ehizatu eta laugarren

postuan sailkatuko nintzatekeen, pena bat! Espainiako Federazioak azken orduan araudia aldatu izanak kalte egin zidan. Bi untxi baino gehiago ehiza zitezkeela erabaki zuten eta ni eperretan naiz abila, beraz, eperrak ehizatzearen aldeko apustua egin nuen eta ondo aritu nintzen arren, gainontzekoek ehizatutako untxi eta erbiek erabaki zuten sailkapena”. Guztira 22 ehiztari hartu zuten parte finalaurrekoan eta Kataluniako ordezkari bat izan zen irabazlea 8 eper eta bi untxi ehizatuta. Valentziar bat sailkatu zen bigarren postuan 7 eper eta bi untxirekin. David Condek bost eper eta erbi bat ehizatu zituen eta Txomin Rogelek, berriz, hiru eper eta lau erbi.

## Mugerza Krosa antolatzen jarraitzeko bi urterako hitzarmena sinatu dute Kirol Patronatuak eta Mintxeta Atletismo Taldeak

**B**i urte pasa dira Elgoibarko Udal Kirol Patronatua eta Mintxeta Atletismo Taldea Nazioarteko Juan Mugerza Krosa antolatzen hasi zirenetik. Hasierako etapak bi urteko iraupena izango zuela aurreikusitako zuten eta sasoi hartan Elgoibarko alkate zen Guillermo Garateren eta Mintxeta Atletismo Taldeko zuzendaritza batzordearen arteko ahozko hitzarmena izan zen etapa horren oinarria. Horrela bada, berriz ere, beste bi urtetan, 2004an eta 2005ean, elkarrekin antolatuko dute Juan Mugerza krosa abenduaren 4an sinatu zuten hitzarmenaren



Marivi Agirregomezkorta eta Josemi Azkoitia.

arabera. Bertan zehazten dira alde bakoitzaren zereginak. Besteak beste, kofinantzaketa, Patronatuak

kofinantzaketan lagunduko baitu urteko 12.000 euroko gehieneko diru laguntzarekin. Mugerza Krosak 80.000 euroko aurrekontua du. Mintxetako kideek eta Patronatuko ordezkari teknikoek eta politikoek osatuko dute Mugerza Krosa antolatuko duen batzordea. Mintxeta A.T.ak probarako egin behar diren muntaia eta antolaketa lanak (takilak, proban eman beharreko laguntza e.a.) egin beharko ditu, proba aurretik, egunean bertan eta proba bukatu ondoren ere bai. Bestalde, Patronatua arduratuko da zirkuitua egokitzeaz.

## Gabonetako I. Areto Futbol Txapelketa abenduaren 26tik 30era

Izena emateko epea abenduaren 22an amaitu-



Gabonetako Torneoaren oinordekoa izan nahi du Areto Futbol Txapelketak.

Udal Kirol Patronatuak eta Elgoibar Areto Futbol taldeak Gabonetako I. Areto Futbol Txapelketa antolatu dute elkarlanean. Gabonetako torneoaren oinordeko izan nahi du txapelketa honek, baina zenbait aldaketa azpimarragarriekin. Batetik, areto futbola izango da kirol bakarra eta bestetik, Elgoibartik kanpoko talde eta jokalariek (14 urtetik gorakoek) parte hartu ahal izango dute. Abenduaren 26an, 29an eta 30ean jokatuko da txapelketa Olaizaga kiroldegian. Partiduak arratsaldeko 19:00etan hasiko dira. Gutxienez

16 taldek eman beharko dute izena txapelketa aurrera atera dadin eta 24 talde onartuko dituzte gehienez. Olaizaga kiroldegian eman behar da izena abenduaren 22a, astelehena, baino lehen. Talde bakoitzak 80 euro ordaindu beharko ditu, baina gutxienez bi partidu jokatzea ziurtatuta izango du eta lehen hiru sailkatuek sari bikainak eskuratu ahal izango dituzte: irabazleak 500 euro eta trofeoa, 300 euro eta trofeoa bigarren sailkatuak eta 100 euro eta trofeoa hirugarrenak. Jokalari onenak 50 euroko saria eskuratuko du.

## Gipuzkoako Herri Arteko Lehen Tenis Txapelketan hartuko dute parte Elgoibarko hiru tenislariak



Abel Hernandez, Ander Oñederra eta Gorka Merino elgoibartarrek osatutako taldeak Gipuzkoako Lehen Herri Arteko Tenis Txapelketan hartuko du parte. Esku pilotan egiten den moduan, Gipuzkoako herriek elkarren aurka neurtuko dituzte indarrak. Guztira 8 herri hartuko dute parte lehen edizio honetan. Elgoibartarrek Azkoiti, Mutriku eta Oñatiko tenislariak izango dituzte aurkari. Beste multzoan, berriz, Azpeiti, Zarautz, Arrasate eta Bergarako tenislariak daude. Multzo bakoitzean puntu gehien lortzen dituzten bi taldeek jokatuko dituzte finalurrekoak. Elgoibartarrek domeka honetan, hilaren 14an, jokatuko dute estreinako partida, Olaizaga kiroldegian (16:00). Banakako bi norgehiagoka eta binakako bat jokatuko beharko dituzte.

### EMAITZAK

#### Futbola

Hernani 2 – Haundi 1 (Pref.)  
Elgoibar 0 – Mutriku 2 (1. erreg.)  
Martutene 3 – Elgoibar 3 (Jub.)  
Elgoibar 4 – Urola 2 (Inf.)  
Eibartarrak 5 – Elgoibar 1 (Neskak)

#### Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa  
Lagunak 22 – Lazkao 12 (Nag.)  
Txapagain 22 – Lagunak 15 (Kad.)

#### Areto Futbola

Indautxu 3 – Kenci Elg. 7 (Nazional B)  
Lanbroa 5 – Antxeta 4 (2. maila)  
Magesa 4 – Tomas Mingot 3 (Jub.)  
Lojantzi 2 – Larramendi 7 (Jub.)  
Magesa 3 – GSI Bilbao 6 (Jub.)  
Kenci Elg. 5 – Rioja Barakaldo 5 (Nazional B)

#### Eskubaloia

ITE Hondarribia 23 – ANTT Softlan 21 (Sen.mt.)

### AGENDA

#### Areto Futbola, Kiroldegian

Zapata, 13  
16:00 Kenci Elg. – Sestao FS. (Nazional B)

#### Futbola, Mintxetan

Zapata, 13  
16:30 Haundi – Zestoa (Pref.)  
Domekia, 14  
10:30 Elgoibar – Ikasberri (Kad.)  
12:15 Elgoibar – Bergara (Neskak)  
16:30 Elgoibar – Anaitasuna (Jub.)

#### Eskubaloia

Zapata, 13  
17:30 Cometel Elg. – Kukullaga (Jub. nesk.)  
19:00 Pagoaga Elg. – Kukullaga (Kad. nesk.)  
Domekia, 14  
11:00 ANTT Softlan – Arrasate (Sen. mut.)  
12:30 Tecnifuelle Elg. – Sestao (Sen. mut.)

#### Esku pilota

Barixakua, 12  
10:00 Lagunak – Altzatarra (Jub.)

#### Tenisa, Kiroldegian

Domekia, 14  
Herri Arteko Txapelketa  
16:00 Elgoibar – Azkoiti



## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durangoaldeko enpresak **metale-rako peoia** behar du.  
Erref. 112201/3

Durangoaldeko enpresak **euskari teknika** behar du.  
Erref. 111796/3

Durangoaldeko enpresak **gasolin-egirako langilea** behar du.  
Erref. 113852/1

Debabarreneko enpresak **komertziala** behar du. Erref. 113012/4

Debabarreneko enpresak **kontroladorea** behar du.  
Erref. 113103/2

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Alberto Iturricastillo) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

◆ Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Fijo edo asteburuetan.  
☎ **626 91 49 04**

◆ Emakumea etxeko lanak edo garbiketara lanak egiteko prest. Egun solteak. ☎ **943 74 22 01**

### ESKAINZA

◆ Kamarera arduratsua eta tabernako atean lan egiteko mutila behar dira. ☎ **943 74 37 71**

◆ Osintxuko jatetxeak, jantokian lan egiteko kamareroa behar du. Asteburuak libre. ☎ **943 76 48 63** (Josebe edo Juana)

◆ Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ **660 23 25 33**

◆ Esperientziadun kamareroak behar dira asteburuetarako. ☎ **670 25 04 29**

◆ Pertsona bat behar da arratsaldez haurrak zaintzeko.. ☎ **627 96 58 45** (Nerea)

◆ Asteburuetan goxoki denda batean lan egiteko neska behar da. ☎ **656 73 28 20**

◆ Kamareroa behar da. ☎ **943 74 42 65**

◆ Emakume bat behar da 2 ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **943 74 0773 - 653 70 36 60**

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Etxebizitzak

◆ Etxea salgai herri erdian. 3 logela, amueblatua, berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **661 42 60 77**

◆ Pisia salgai Deban. 3 logela, egongela, sukaldea eraberritua, berogailu zentrala, bi ganbara eta bi balkoi. ☎ **619 24 17 08**

◆ Etxea salgai San Antolinen. 5. ezk. ☎ **943 74 22 05**

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

◆ Pisia salgai Deban. ☎ **619 24 17 08** (Marisol)

◆ Logelak alokatzen dira San Roke auzoan. Sukaldea erabiltzeko aukera barne. ☎ **943 74 88 53**

◆ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **626 91 49 04**

◆ Pisia salgai Basarte kalean. Altzariekin. Oso polita. ☎ **678 62 73 97**

◆ Apartamenduak alokatzen dira Torre del Mar herrian (Malaga). Urte osoan zehar. ☎ **659 26 10 84**

## Salerosketak

◆ Trabiaki piragua salgai. 5,40 metroko luzera. 600 euro. ☎ **943 03 35 58**

◆ Peugeot 205 gasolinazkoa salgai. Egoera oso onean. ☎ **943 74 32 94**

◆ Kotxe zaharra salgai. Diesela. Erosleak jarriko du prezioa. ☎ **686 48 10 68**

◆ Newpool markako labadora salgai. 10 hilabetekoa. Garantian dago. ☎ **943 74 22 01**

◆ Seat Toledo 2000i. salgai. 250.000 pza. ☎ **656 78 98 82**

◆ Bi eskopeta salgai. Paraleloak. Bata usotarako eta bestea oilgorretarako. ☎ **943 74 00 79**

## Bestelakoak

◆ M.F. iniziladun urrezko madaila galdu da. Eskertu egingo da. ☎ **696 60 84 85**

◆ Lau urteko dalmata txakurra oparitzen da. Txipa dauka. ☎ **636 390 808** (Manoli)

◆ Belarritako bat galdu dut Arregitorretik Haurtzaindegira bitartean. ☎ **943 74 37 75**

## Garajeak

◆ Garajea alokatzen dut. ☎ **943 74 18 81**

◆ Kiroldegi ondoan bi garaje salgai. ☎ **626 60 71 55**



## ANTT CONSULTORIA

INMOBILIARIA

Antonio Arrillaga, 1 behe  
Tel.: 943 74 80 92

### ERAIKUNTZA BERRIAK

#### ALTZOLA

\* Aukera ezin hobea 20 millioitik aurrera

#### LEKU - EDER

\* Azken Etxebizitzak!!!!

\* Lokalak

#### BARTOLOME ETA FRANTZISKO DEUNA

\* 2 logelako etxeak

### BIGARREN ESKUKOAK

#### ETXEBIZITZAK

**Santa Ana:** 3 logela, egongela, sukaldea, terraza eguskitsua. Sartzeko modua. 169.000 .

**Santa Ana:** 3 logela, egongela, sukaldea, igogailua. Sartzeko moduan. 177.298,57 .

#### GARAJEAK

Erdialdean: Marraduna. 21.000

Marraduna. 24,5 m<sup>2</sup>. 21.000

San Roke: Itxia. 15 m<sup>2</sup>. 22.900

Marraduna. 25 m<sup>2</sup>. 21.000

San Roke: Alokairuan. 54 / hileko

Urasandi: Itxia. 27m<sup>2</sup>. 33.055,67

Urasandi: Lokala. 90 m<sup>2</sup>. 66.000

## Agurrak

♦ Zorionak **Oihane Osorori**, gaur, hilak 12, 16 urte bete dituelako. Familiakoen, gurasoen eta batez ere, ahizpa Miriamen partez.



♦ Remen, abenduaren 13an **Gabriel Kruzelegi** kaleko argiek dizdira espeziala izango debe. Osasunarekin urratu!!



♦ Zorionak **Nerea** Iraolari, hilaren 10ean, bi urte bete zituelako. Etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **Paulatxo** zure 4. urtebetetzean eta musu haundi haundi bat familia guztiaren partez.



♦ Zorionak **Ignacio**ri, hilaren 13an 8 urte bete dituelako. Zure anaia, guraso eta lehen-gusuen partez.



♦ Heldu da eguna! 6 urte! Zorionak **Iharti**! Prestatu zure eguna oso ondo pasatzeko. Patxo asko zure familiakoen partez, Matraka.



♦ Zorionak **printzesa** zure 8. urtebetetzean. Familiako guztien partez. Ondo pasa eguna.



♦ 9 urte handi bete dituzun une pozgarri honetan, zorionak **Pello!** Muxu eder bat etxeko guztien partez. Jarraitu horrela, jator jatorra izaten.



♦ Zorionak **Aitanari**, abenduaren 13an, 7 urte beteko dituelako. Gurasoen, Lauraren eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **"pelopintxo"**! Gaur, hilak 12, zure lehenengo urtebetetze eguna, eta zu ile hauekin!! Aupa Nagore! Ainhoa, amatxo eta aitaixoren partez.



♦ Zorionak **Ander Osorori**, hilaren 9an, 12 urte bete zituelako. Amona Garbiñe eta familia osoaren partez.



♦ Zorionak **Maier** eta **Julen**, hilaren 13an eta 15ean, 9 eta 5 urte beteko dituzuelako. Etxeko-en, eta bereziki, Aitor, Ainhoa eta Zorionen partez. Baita zuri ere, tia Maria Luisa.

## LEHIAKETAK

### Eskulangintza

Arabako Foru Aldundiak, 2003ko Blas de Arratibel Eskulangintza-lehiaketa antolatu du, eskulangintza suspertu eta sektoreko lanetako ezagupen eta esperientziak elkartrukatzeko helburuarekin. Bi modalitate: eskulangintza tradizionala eta sortu berriak diren eskulanak. 1.500 euroko saria modalitate bakoitzeko. Epea: abenduak 19

### Kartel diseinua

Arabako Automozio Enpresaburuen Elkarteak, automozio tailerretan ingurumenarekiko begirunea eragiteko kartela diseinatze lehiaketa antolatu du. Kartelak DIN-A2 neurrikoak izan beharko dira, teknika librez eginak eta luma-paperean eta baita euskarri digitalean ere aurkeztu beharko dira. Epea: abenduak 18

## JARDUERAK

### Elkartrukea

Euskal Interkultura erakundeak 15-18 urte bitarteko gazteek atzerrian ikasteko programak prestatzen ditu, eta ikasle atzerritarrek euren hartuko dituzten famila bila dabil. Prestatzen dituzten programak kurtsu osokoak, hiruhilabetekoak, negukoak edota udakoak dira. [www.afs-intercultural.org](http://www.afs-intercultural.org)

## LANA

### Kazetariak

Urola-Kostako komunikazio-proiektu baterako kazetari bila dabilta. Baldintzak: kazetaritza lizentziatua izatea, kazetaritza ikasten egotea edo kazetaritza-lanetan esperientzia izatea, euskaraz jakitea eta autoa izatea. Epea: abenduak 17

### Komertziala eta kudeatzailea

Urola-Kostako komunikazio-proiektu baterako komertzial eta kudeatzaile bana behar dituzte. Baldintzak: giza harremanetarako trebe eta dinamikoa izatea, euskaraz jakitea eta autoa izatea. Epea: abenduak 17

### Garbiketa langileak

Debarrenako Mankomunitateak bideen garbiketa-zerbitzu publikorako 4 langile espezialista kontratatze eta lan-poltsa sortzeko deialdia egin du. Baldintzak: Eskolaratze Ziurtagiria edo titulu baliokidea eta euskarako 1. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 17

### Antolamenduko teknikaria

Beasaingo Udalak antolamenduko goi-mailako teknikari baten lanpostua oposizio-lehiaketa libre bidez betetzeko deialdia egin du. Baldintzak: zuzenbideko lizentziatu-titulua eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 23

### Administraria

Beasaingo Udalak, Udalaren informatika sareko eta idazkaritzako administrari-kudeatzaile lanpostua betetzeko deialdia egin du. Lanpostu hau minusbaliotasuna dutenentzat gordeta dago. Baldintzak: Batxilergo titulua, Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea, euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna eta %33ko edo goragoko minusbaliotasuna aintzatetsia edukitzea. Epea: abenduak 24

## Farmazia - okindegia

### EGUNEZ

- 12 Etxeberria  
(Errosario kalean)  
13 Yudego  
14 Fernandez  
15 Bidasolo  
16 Etxeberria  
(Santa Ana kalean)  
17 Fernandez  
18 Yudego  
19 Zabaleta  
20 Etxeberria  
(Errosario kalean)  
21 Etxeberria  
(Errosario kalean)  
22 Ibañez  
23 Bidasolo  
24 Etxeberria  
(Errosario kalean)

### GAUEZ

- Etxeberria  
Fernandez  
Fernandez  
Bidasolo  
Etxeberria  
Fernandez  
Yudego  
Zabaleta  
Etxeberria  
Etxeberria  
Ibañez  
Bidasolo  
Etxeberria

### FARMAZIAK

- ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38  
**FERNANDEZ**,  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

- 14 **igandea** Ibarrenea  
21 **igandea** Idarraga

## KONTZERTUAK

### Benito Lertxundi

Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du abenduaren 26an, barixakuan, Herriko Antzokian. "Nere Ekialdean" lana aurkeztuko du abeslari oriotarrak. Kantaldia gaueko 22:15ean hasiko da. Sarrerak aurrez eskurra daitezke Kultur Etxean (goizez).

## 19 BARIXAKUA

20:00 MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN GABONETAKO KONTZERTUA  
San Bartolome parrokian

## 21 DOMEKIA

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN GABONETAKO KONTZERTUA  
Herriko Antzokian  
18:30 PARROKIKO ABESBATZAREN EMANALDIA  
San Bartolome parrokian

## 23 MARTITZENA

19:00 ELGOIBARKO KIROL FEDERATUAREN URTEKO SARIAK  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan

## 24 EGUAZTENA

18:00 PARROKIKO ABESBATZAREN KALEJIRA  
19:15 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

## 12 BARIXAKUA

19:00 MORKAIKO MENDIZALE ELKARTEAREN ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA  
Morkaiko Mendizale Elkartearen argazki erakusketaren inaugurazioa  
22:15 ANTZERKIA  
"Las mujeres de verdad tienen curvas"  
Taldea: Ados Teatroa  
Herriko Antzokian

## 13 ZAPATUA

11:00 XVII. JAIOTZEN LEHIAKETARAKO IZEN EMATEA  
Parrokiko lokalean

## 14 DOMEKIA

11:00 XVII. JAIOTZA LEHIAKETAREN ERAKUSKETA  
Parrokiko arkupeetan  
11:00 INGURUGIROARI BURUZKO ERAKUSKETA IBILTARIA  
Plaza Handian  
Antolatzailea: Debegesa

## 16 MARTITZENA

17:00 "KANDELENMARGIPEAN" IPUIN KONTAKETA  
Udal Liburutegian

ZINE  
kluba



### "Suite Habana"

Zuzendaria: Fernando Perez

Dokumentala

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia inauguratu zuen film honek pasa den irailean. Dokumental goxo eta beroa, La Habana hiriko bizilagun anonimoen eguneroko bizimoduan murgiltzeko saiakera izan nahi du. La Habana eta Kuba osoko egoera zaila izanik ere, bertako bizilagunek galdu ez duten itxaropena goraiatzen du filmak. Horren kubatarra den erritmo leun-leuna eta lasaia erabili du Fernando Perez zuzendariak.



## LIBURUAK

### “Deba Behea: Ibilbideak”

Elgoibarko Udalak “Deba Behea: Ibilbideak” liburua jarri du salgai. Kultur Etxean edo Olaizaga Kiroldegian eskura daitezke. Bost euro balio ditu liburuxka bakoitzak. Bertan Debabarrenan dauden ibilbide desberdinen berri ematen da.

## IKASTAROAK

### IMHko langileentzako ikastaroak

Langileentzako Heziketa Iraunkorreko 2004ko ikastaroen zerrenda berria atera da jadanik. Datorren urteko urtarriletik uztaile bitartean 180 ikastaro programatu dira langileei zuzenduak: diseinua, fabrikazioa, mantentzea eta muntaia, metrologia, kalitatea, giza baliabideak, marketina, segurtasun eta higieena, antolaketa industrialia eta informatika arloetan.

Diseinuari dagokionez, 11 ikastaro berri sortu dira, eta fabrikazioan, berriz, abiadura handiari buruzkoa eta fresagailuko mozteko erremintei buruzkoak dira aipagarrienak. Hauetatik 50 ikastaro inguru dira Katalogo Modularrekoak, hau da, “Hobetuz”ek %100%eko dirulaguntza eskaintzen du, eta langileek dirulaguntzak jasoko dituzte. Informazio gehiago lortzeko [www.imh.es](http://www.imh.es) edo 943 74 82 66 telefonora deitu (Leiregatik galdetu).

### Haur eta helduentzako igeriketa ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak haur eta helduentzako igeriketa ikastaroak eskainiko ditu urtarrilaren 7tik aurrera, zazpi saio guztira. Izena emateko epea abenduaren 15etik 23ra bitartean izango da. Olaizaga kiroldegian eman daiteke izena.

## Barreterapia

Barreterapia ikastaroaren laugarren jardunaldia ospatuko da Aubixa baserrian abenduaren 14an, domekan. Honekin amaiera emango zaio ikastaroari, baina izan duen harrera ona ikusirik datorren urtean ere barreterapia jardunaldi berriak eskaintzeko asmoa dute arduradunek. Ordutegiari dagokionez, goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 19:00etara luzatuko da ikastaroa. Izena eman edo informazio gehiagorako 943 74 17 15 telefonora deitu.

## IPIUIN KONTAKETA

### “Kandelen Argipean”

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, abenduaren 16an, martitzenean, “Kandelen Argipean” ipuin kontaketa izango da Udal Liburutegian. Bi saio egongo dira: Lehenengoa, 3, 4 eta 5 urteko umei zuzendua, arratsaldeko 17:00etan eta bigarrena, 1, 2. eta 3. mailako umeentzat 17:30etik aurrera.

## JAIALDIAK

### Gabonetako jaialdia Pilarren

Pilar Ikastetxeak Gabonetako jaialdia egingo du datorren abenduaren 18an, ostegunean, Ikastetxeko gimnasioan. Egitarauan denetarik egongo da: Gabon kantak, antzezlanak, dantzak, abestiak... eta Pilarreko ikasle guztiek hartuko dute parte. Ikasleen guraso eta senide guztiak daude gonbidatuta lehenengo hiru hileko ekintzei amaiera ematen dien jaialdira. Ikuskizunak 15:00etan hasiko dira.



### ELGOIBAR, Herriko Antzokian “Las mujeres de verdad tienen curvas”

13, zapatua: 19:30-22:15  
14, domekia: 19:30-22:15  
15, astelehena: 22:15

### “Doraemon eta Maya inperioa”

14, domekia: 16:30  
“Suite Habana” (Z.K.)  
18, eguna: 22:15

### “La Liga de los hombres extraordinarios”

19, barixakua: 22:15  
20, zapatua: 19:30-22:15  
21, domekia: 19:30-22:15  
22, astelehena: 22:15

### “Betizu izar artean”

21, domekia: 16:30

### EIBAR, Unzaga “Mystic River”

12, barixakua: 19:30-22:15  
13, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
14, domekia: 17:00-19:30-22:30  
15, astelehena: 19:30-22:15  
16, martitzena: 19:30-22:15  
17, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, Rialto “Dias de futbol”

12, barixakua: 19:30-22:15  
13, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
14, domekia: 17:00-19:30-22:15  
15, astelehena: 19:30-22:15  
16, martitzena: 19:30  
17, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.



## “Las mujeres de verdad tienen curvas”

Zuzendaria: Patricia Cardoso

Antzezleak: America Ferrera, Lupe Ontiveros, Ingrid Oliu.

Josefina Lopezen bere bizipenetan oinarrituz idatziriko antzezlan du abiapuntu film honek. Los Angeles hirian bizi den etorkin mexikarren alaba gaztea da protagonista. Jatorriak eta arbasoen kultura gorde nahi ditu, baina batzuetan ez dira erraz uztartzen Los Angeles moduko hiri batek bizimoduz aldatzeko eskaini ditzakeen aukerekin. Unibertsitatera joan daitekeen familiako lehena izan daiteke, baina amaren jostun tailerlean lagundu beharko du aurrez.

# ZINEA



# A


ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1957. urteko argazkia da, eta Morkaiko mendian aterata dago. Garai hartan ere, mendirako zaletasun handia zegoen gure herrian, eta erretratu honetan garai hartako herritar ospetsuak ageri zaizkigu. Lagun talde hau, Morkaikora joan zen egun honetan, eta seguru asko, ibilaldi polita egingo zutela. Gogora dezagun zeintzuk diren argazkian ageri diren mendizale hauek:

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Jose Manuel Iriondo** (†), **Maximo Konde** (†), **Kanuto Gabilondo** (†), **Jacinto Astiazaran** (†), **Manuel Gabilondo** (†), **Eugenio Mujika** eta **Estanis Madariaga** (†).

## ESKERTZA




2003ko abenduaren 9an, 83 urte zituela hil zen Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren, **DOMINGA ASTIGARRAGA AROCEN**Aren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA



20013ko abenduaren 3an, 84 urte zituela hil zen **JOSEFA SORALUZE ARRIOLA**Aren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ARROZTEGIAK

### **BIENA**

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ **943 74 31 16**

### **ETXEKIT**

Erreformak-proiektuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ **943 74 43 47**

### **GARCIA**

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ **943 74 32 38**

### **LODOSO**

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.  
☎ **943 74 34 90**

### **SORALUZE**

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ **943 74 36 34**

### **ULAZIA**

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ **943 74 05 47**

### **ZABALA**

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea, 16  
☎ **943 74 03 96**

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

### **ANGEL**

Santa Ana, 5  
☎ **943 74 17 61**  
☎ **689 04 92 06**

### **ONGI**

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioa  
☎ **943 74 28 80**

### **PAGOAGA**

San Antolin, 13  
☎ **943 74 02 79**

### **TELLABIDE**

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
☎ **943 75 50 62**  
☎ **607 75 50 62**

### **ZALDUA**

Urasandi, 26  
☎ **943 74 05 30**

### **ZUBIZARRETA**

Ubitarte, 5  
☎ **943 74 07 89**  
☎ **608 14 30 40**

## PINTURAK

### **BIOK DEKORAZIOA**

Santa Klara, 11 behe  
☎ **943 74 15 52**  
☎ **606 43 11 19-20**

### **IPINTZA**

Foruen enparantza, 4  
☎ **943 74 04 40**  
☎ **607 74 04 40**

## ELEKTRIZITATEA

### **ARAMAR**

Morkaiko, 1  
☎ **943 74 12 80**

### **AZPELETA**

San Frantzisko, 51  
☎ **943 74 12 38**

### **JOSEBA**

Pedro Muguruza, 29  
☎ **943 74 09 02**  
☎ **659 93 49 64**

### **URZELAI**

Santa Ana, 12-14  
☎ **943 74 13 76**

## IGELTSERITZA

### **ANTONIO MARKEZ**

Urasandi, 24  
☎ **943 74 34 18**

### **ASKETA**

Osio, 7 DEBA  
☎ **629 34 43 89**

### **JOSE LUIS MENDEZ**

Urasandi, 24  
☎ **943 74 29 87**  
☎ **679 19 77 47**

## ISOLAMENDUAK

### **GLAS CONTROL S.L.**

Isolamenduak  
Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ **943 74 30 94**